

Buletineko gaiak:

- | | | |
|---|-------------------------------|--------------------------------|
| 1. Ikasturte amaierako guraso bilerak | 4. Jantoki zerbitzua ekainean | • <i>Etapetako informazioa</i> |
| 2. Alexia plataforma familietara | 5. Xanistebanetako txosna | |
| 3. Haurtzaro Ikastolaren eguna: Ginkana | 6. Oinbusa martxan | |

Berri orokorrak

1.- Ikasturte bukaerako guraso bilerak

Maiatzaren 22an hasiko dira ikasturte bukaerako guraso bilera orokorrak. Haurtzaro Ikastolako Webgunean dagoen egutegian aurkituko dituzue datak. Bilera aurretik bilera deialdia eta txostena jasoko dituzue.

2.- Alexia plataforma familietara

Alexiarako sarbidea egitea gogorarazi nahi dizuegu familiei. Orain probetan gabiltza, baina etorkizun hurbilean Alexia izango da familia eta ikastolaren arteko komunikaziorako tresna nagusia eta beraz guztiak bertara sartu ahal izatea ezinbestekoa da. Haurtzaro Ikastolako webgunean, "Alexia, familientzako gidak" atalean aurki ditzakezuen bideo tutorialen bidez, egin beharreko pausu guztiak argi azalduta daukazue eta inongo arazorik bazenute gurekin harremanetan jarri zaitezke.

3.- Haurtzaro Ikastola eguna: ekainaren 2an

Ikastolaren eguneko antolaketarako zenbait informazio aurreratu nahi dizuegu, eta zuen laguntza eskatu:

- Ikasleek hainbeste estimatzen duten Ginkanarekin emango zaio hasiera 8:00etan. LH 3. mailatik DBH 4. maila arteko ikasleak hartu dezakete parte. Izena emateko zerrendak eta araudia, parte hartu dezaketen ikasleen geletan zintzilikatu ditugu. Jada izena eman dezakete ikasleak eta horretarako epea maiatzaren 23an amaituko da.

- **Laguntza eskaera: GINKANArako 70 guraso behar ditugu.**

Ginkana antolatu ahal izateko, eta horrela nahi duten ikasle guztiek parte har dezaten, 70 gurasoen laguntza beharrezkoa dugu. Buletin honetan aurkituko duzue laguntza emateko izen emate orria eta epea maiatzaren 20an amaituko da. (Ginkanaren iraupena 7:30etik-11:00etara da)

Gogoratu gurasorik gabe ezinezkoa izango dela egitea. Azken egunean izenik eman gabe bertaratzen da guraso asko, baina hori antolatzaileentzat ez da forma egokiena. Mesedez aurrez izena eman ezazue!!

Izena ematen duzuen gurasoentzat oharra: txaleko reflektantea behar duzue egun horretarako.



- **BAZKARIA ETA PROGRAMA:** Bazkarirako txartelen salmentaz eta egitarauaz aurrerago informatuko dizuegu.

4.- Jantokiko erabiltzaileentzat oharra

Buletin honekin banatu diegu jantokiko erabiltzaileei, ekainean ikasleak goizez daudenean jantokia erabiliko duten galdetzen duen esku-orria. Egun erdiko egunak ekainaren 11etik 22ra bitartean izango dira. Azken egunean, ekainaren 22an ere, jantoki zerbitzua eskainiko da.

Orria oraingo erabiltzaile guztiak bete behar duzue. Betetzerakoan kontuan har itzazue ikasleen ikasturte bukaerako irteerak ere. Datu horiek orain jakitea beharrezkoa dugu gure antolaketaarako. Esku-orria Ikastolako **idazkaritzan** entregatu behar duzue eta **MAIATZAREN 18a izango da horretarako azken eguna.**

5.- Xanistebanetako Txosnan lan egiteko izen ematea

Ikasleek oporrak hartu aurretik antolatu nahi ditugu egun bakoitzeko txandak eta aurten TABERNAN zein egunetan lana egiteko prest zaudeten jakin nahi dugu.

Guztira 150 lagun behar ditugu txandak osatzeko, txanda bakoitzeko 28 lagun inguru; urtero lan egiten duzuen gain orain arte tabernan lana egin ez duzuenen parte hartzea ere beharrezkoa dugu.

Buletin honekin batera doakizue informazioa eta izen emate orria.

Oharra: Txanda motza, HHn haurrak dituzten gurasoek lana egiteko txanda da. Animatu parte hartzera!!

6.- LHko gurasoentzat bilera deialdia: "Oinbusa martxan"



Datorren **maiatzaren 17an, OSTEGUNA**, Oinbusa egitasmoa martxan jartzeko bilera egingo dugu. Bileran Ikastolako **TEKNOLOGIA gelan** egingo dugu arratsaldeko **5etan**.

Ikastolatik, gutxi gora behera hurbil bizi zareten guztiok (kilometro batera edo...) ikastolara oinez etortzeko egitasmoa martxan jarri nahi dugu.

"OINBUSA" PROIEKTUA: Nahi eta posible duten haur eta gazteak ikastolako bidea oinez eta taldean egitea da, goizero-goizero.

Horretarako, **maiatzaren 21ean hasita** hiru zutabe, hiru Oinbus abiatuko dira herriko toki desberdinetatik eta bidean ikasle gehiago batuko zaizkie. Oinbus bakoitzeko ordutegia ikasleei helaraziko zaie.

LHkoak : 8:30etarako ikastolako atean izango dira denak. Ikasle taldeak eta guraso bolondresak lagundua joango da. Familia bakoitzarena da erabakia eta ardura.



DBHkoek ere aukera izango dute(euren ordutegian) eta 8:00etarako ikastolako atean izango dira denak.

IBILBIDEAK: Dagoeneko markatuta daude. Ugaldetxo , Iturriotz eta Altxibarretik Ikastolara bide seguruak lurrean margotuta daude. OINBUS gezi horiak jarraituz Ikastolara iritsiko dira ikasleak.

HELBURUAK:

- Ikastolan goizero sortzen den kotxe pilaketa eta arriskua gutxitzea eta bestetik, haur eta gazteak ikusarazi eta horrela herria jasangarriagoa egitea.
- Oinez ibiltzeko ohitura sustatzea. Herriko biztanle sentiarazten ditu txikitatik. Herria haurrentzat egokiagoa egiten laguntzen dugu (baita helduentzat ere). Ikasleek konfiantza izan behar dute herrian barna lasai ibiltzeko, arauak errespetatzen eta arriskuak identifikatzen ikasten duten bitartean.
- Taldean etortzea: Talde lanaren eta elkar babestearen beharra ikasten dute haurrek. Ongi pasatzea ikastolako bidean.Haurrak seguru joatea da lehentasuna, baina ongi pasatzea ere bada helburua, Ikastolara lagunekin batera joatea

NOLA GAUZATU: Oinbus bakoitzak bere ibilbidea eta abiatzeko ordua dauka .(Helaraziko zaizue).

Maiz Egindako Galderak:

Gure etxe ondotik pasatzen da Oinbusa , handik pasatzean gehitu gaitzke? Bai. Beharrezkoa da Oinbusean joatea? Ez. Familia bakoitzaren erabakia eta ardura izan behar du. Baina aurrean aipatutako guztiagatik , gomendagarria da.

Haurren batek istripua izateko arriskurik ez dago? Bide seguruetatik bideratua dago. Hala ere, bidegurutzeak markatuta daude eta arriskua asko gutxitzen da talde handia bada, errazago ikusten delako eta gidariek abiadura mantsotzen dutelako talde handien ondoan. Geroz eta Oinbus handiagoa, orduan eta seguruagoa.

Txikientzat ez ote da bide luzeegia? Gurasoek eta haurrek erabaki behar dute hori.

Euria eta hotza ari badu, zer? Orokorrean haur eta gazteek ez diote euri eta hotzari beldurrik izaten. Arropa egokia,oinetako egokiak , zira eta aterkia eramatea da kontua. Ikastolan aldatzeko arropak gordetzeko aukera ere bada.



Haur Hezkuntzako berriak

1.- HH 2. mailako ikasleen irteera maiatzaren 17ean

Datorren ostegunean, maiatzak 17, HH 2. mailako ikasleak (lau urte) LABORE kooperatibara joango dira. Goizean, ikasle guztiak, 9:30etako ikastolan egon behar dute. Irtenaldia goizekoa izango da, oinez joan eta bueltatuko dira 12:00etarako ikastolara.



Eskola kanpoko ekintzen berriak

1.- Haurtzaro trikitilari, panderojole eta gitarra taldearen emanaldia

Haurtzaro ikastolako trikitilari, panderojole eta gitarra ikasleen ikasturte amaierako emanaldia izango da ikastolako jantokiko goiko solairuan **maiatzaren 30ean. Ikasleak 16:30ean** egon beharko dute jantokian, **emanaldia 17:30ean** hasiko da. Guztiak gonbidatuta zaudete!

Ginkanan laguntza emateko prest nago (ekainaren 2an, 7:30-11:00)

Ikaslearen izen abizenak:

Maila eta gela:

Gurasoaren izen abizenak:

Kontakturako telefonoa:

Idazkaritzara eramateko azken eguna maiatzaren 20a



Temas del boletín:

- | | | |
|--|------------------------------------|---------------------------------|
| 1. <i>Reuniones generales de fin de curso</i> | 4. <i>Comedor en junio</i> | • <i>Información por etapas</i> |
| 2. <i>La plataforma Alexia para las familias</i> | 5. <i>Chozna de Xanistebanes</i> | |
| 3. <i>Ikastola eguna: Ginkana</i> | 6. <i>A la ikastola con Oinbus</i> | |

Información general

1.- Reuniones generales de aula de fin de curso

A partir del 22 de mayo comenzarán las reuniones generales de aula de fin de curso. Al aproximarse la fecha de la reunión, recibiréis la convocatoria y el orden del día. Encontraréis las fechas de las reuniones en el calendario de la Web de Haurtzaro Ikastola.

2.- La plataforma Alexia para las familias

Os queremos recordar a las familias que realicéis vuestro acceso a Alexia. En estos momentos estamos en una fase de pruebas, pero muy pronto Alexia va a ser la plataforma principal por el cual nos comunicaremos la ikastola y las familias. Para ayudaros en dicha tarea, en la sección "Alexia, familientzako gidak" de la página web de Haurtzaro Ikastola tenéis los video tutoriales en los que se os explica de una forma sencilla los pasos que hay que seguir. En cualquier caso, si tuvierais cualquier problema podéis poneros en contacto con nosotros-as

3.- Haurtzaro ikastolaren eguna, 2 de junio; Ginkana

Queremos adelantaros alguna información **sobre este día y pediros vuestra colaboración.**

- Daremos inicio a la *Ikastola eguna* a las 8:00 con la Ginkana. Ya se han colocado en las aulas de 3º de EP a 4º de ESO las hojas de inscripciones para la Ginkana por lo que los alumnos-as ya se pueden inscribir hasta el 23 de mayo.
- **GINKANA: Necesitamos vuestra colaboración**, para poder realizar esta actividad y para que puedan participar todos y todas las alumnas que se inscriban, necesitamos la **ayuda de 70 voluntarios-as**. Encontraréis la hoja de inscripción al final de este boletín y podéis entregarlo en secretaría hasta el 20 de mayo. Nota importante: El mismo día venís muchos padres-madres sin estar apuntados a echar una mano. De esta manera nos es muy difícil organizar esta actividad; os pedimos que deis vuestro nombre con antelación.

Sin la colaboración de los padres-madres no podremos organizar la Ginkana ¡Animaros!



Nota: los padres-madres que colaboréis en la Ginkana debéis traer un chaleco reflectante.

- **COMIDA y PROGRAMA DEL DÍA:** Os informaremos más adelante de los tickets de la comida y del programa.

4.- Comedor para los días de media jornada de junio

Hemos repartido con este boletín a todos los usuarios-as del comedor la hoja de inscripción para el comedor para los días de media jornada de junio, del 11 al 22 de junio. Recordad que habrá servicio del comedor el último día del curso, viernes 22 de junio.

Debéis **rellenar la hoja todos los usuarios-as**. Al rellenar la hoja tened en cuenta los días de las excursiones de fin de curso. Esta hoja debéis entregarla en **secretaría; el último día para ello será el 18 de MAYO**. Para la organización del servicio durante esos días necesitamos esta información.

5.- Inscripciones para trabajar en la chozna de Xanixtebanes

Antes de que los alumnos-as tomen las vacaciones, queremos dejar organizados los grupos para cada turno. Por ello os mandamos las hojas de inscripción con información más detallada.

En total hacen falta unas 28 por día, por lo que aparte de los que trabajamos habitualmente en los turnos, necesitamos padres-madres nuevos. ¡Animaros! Entregad la hoja de inscripción en secretaría.

Nota: Pedimos que se reserve el 1er turno a las familias de HH. ¡Animaros!

6.-Reunión para las familias de LH: "Oinbusa martxan"



El próximo jueves, 17 de mayo, se celebrará la reunión para poner en marcha Oinbusa. La reunión será en el aula de Tecnología a las 17:00.

Nuestro objetivo es poner en marcha este proyecto con las familias que viven cerca y dentro de un radio de un kilómetro de la ikastola.

Proyecto "OINBUSA": Realizar todas las mañanas el trayecto a la ikastola a pie con los alumnos-as que pueden y deseen participar.

Para ello, **comenzando el 21 de mayo**, los Oinbuses partirán de tres puntos diferentes e irán sumándose durante el recorrido los demás alumnos-as. A cada alumno-a se le repartirá el recorrido y horario de los Oinbuses. Los alumnos-as de LH estarán para las 8:30 en la ikastola. El grupo de alumnos-as irá acompañado de los padres-madres voluntarios-as. Es decisión y responsabilidad de las familias participar o no.

Los alumnos-as de DBH también tendrán la posibilidad de participar (en su horario) y para las 8 estarán en la ikastola.



RECORRIDOS: En este momento está hecha la señalización. Desde Ugaldetxo, Iturriotz y Altzibar están señalizados los recorridos seguros a la Ikastola. Llegarán a la ikastola siguiendo las flechas amarillas de OINBUS.

OBJETIVOS:

- Evitar las aglomeraciones y riesgos que se producen por la mañana con los coches en la ikastola, y además de ello crear un pueblo más sostenible.
- Sustentar la costumbre de caminar. Sentirse parte del municipio desde la infancia. Colaborar en tener un pueblo más adecuado (también para los adultos-as). Los alumnos-as se sentirán más tranquilos al recorrer las calles, mientras aprenden a respetar la normativa e identificar los riesgos.
- Venir en grupo: Los niños-as aprenden a trabajar y a defenderse en grupo. Pasarlo bien de camino a la ikastola. El objetivo es la seguridad, y además, pasarlo bien y venir a la ikastola con los amigos-as.

DESARROLLO: Cada Oinbus tiene su recorrido y horario (se os informará).

Preguntas frecuentes:

Oinbusa pasa cerca de nuestra vivienda, ¿podemos agregarnos al grupo? Sí. ¿Es obligatorio ir en el Oinbus? No.

Es decisión y responsabilidad de cada familia participar o no. Pero por todo lo comentado anteriormente es recomendable.

¿Existe alguna posibilidad de que algún alumno-a tenga un accidente? El recorrido está realizado por tramos seguros. Los cruces están marcados, de este modo se minimiza el riesgo y hay que añadir que los conductores-as ven mejor si el grupo es grande y con ello moderan la velocidad. Cuanto más grande el Oinbus más seguro.

¿El recorrido puede ser largo para los más pequeños? Eso lo decidirá la misma familia.

¿En caso de mal tiempo? En general los niños-as y jóvenes no tienen inconvenientes con el frío y la lluvia. Para esos días habría que tener en cuenta vestir ropa y calzado adecuado para ello y utilizar un paraguas, también habría la posibilidad de tener ropa en la ikastola para cambiarse.



Educación Infantil

1.- Salida de los alumnos y alumnas de HH 2 el 17 de mayo

El próximo jueves, 17 de mayo, los alumnos-as de HH 2 irán a la cooperativa LABORE.

Todos los alumnos-as tienen que estar en clase para las 9:30. La salida será por la mañana, iremos y volveremos andando. Los alumnos-as estarán en la ikastola para las 12:00.



Actividades extraescolares

1.- Actuación del grupo de trikitilaris, panderojoles y guitarristas de Haurtzaro

Los alumnos-as de las actividades extraescolares de trikitixa, pandero y guitarra ofrecerán un concierto de fin de curso en el comedor de la ikastola el **30 de mayo**. **Los participantes** deberán estar en el comedor a las **16:30h** y **la actuación** empezará a las **17:30h**. Estáis invitados-as.

Colaboraré en la Ginkana del día de la Ikastola (2 de junio de 7:30 a 11:00)

Nombre y apellido del alumno-a:Curso y aula:.....

Nombre y apellido del padre-madre:

Teléfono de contacto: (Entregar en secretaría antes del 20 de mayo)